

Piarres Larzabal

ANGLES GINELARIK

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoaren irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (IV)*, Piarres
Larzabal (Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1992

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=275>

ANGLES GINELARIK

(Hiru gertalditako antzerkia-1973)

Xehetasun zorbait historia aldetik

Lapurdi egon da anglesen meneko hiru ehun bat urtez (1153-1450).

Anglesek, Lapurdi ahultzeko, bi zatitan ezarri zuten: Zati bat Baionari lotua, bertzea Uztaritzeri.

Baiona kasik bere gain bizi zen, buruzagi zuela auzapez bat, herritarrez hautatua. Gainerateko herriak gobernatuak ziren, Uztaritzeko biltzarraren bidez.

Baionan, Pez de Poyane zela auzapez, anglesen baimenarekin deliberatu zuten Errobi ibaia Baionarena zela marea goiti joaiten zen mugaraino, beraz Uztaritzearaino: Ur gazia Baionako itsasotik zen eta beraz Errobi ibaia gazitzen zen mugaraino, Baionarena zela.

Hortakotz, baionesek ur-zainak eman zituzten Errobi bazterretan, Uztaritzeraingo.

Bainan, Uztaritzeko Biltzarrak ez zuen holakorik onartu.

1343-an, lapurtarrek, gau batez ur-zainak hartu zituzten eta urerat aurtiki.

Mendekioz, Milafrankako bestetan, Baionako soldadoek atakatu zituzten eta preso altxatu, Milafranka-Mihotzeko jauregian, bestalari elkartuak ziren bost euskaldun buruzagi: Zalduya aita semeak (hazpandarrak), Urtubi (urruñarra), Senpere (senpertarra) eta Lahet (saratarra).

Bost presonerak estekatu zituzten Milafranka Prudina zubiko pilarieri, burua doidoia uretik kanpo, marea beheiti zelarik, erranez ura jasta zezatela ean gazia zen ala ez.

Marea goititzearekin, han ito ziren.

Hortarik sortu zen gerla luze bat. Azkenean, Tartaseko jauna bitarteko harturik, antolaketa bat egin zuten: Baionesak kondenatuak izan ziren honenbesteko diruketa baten emaiterat katedraleko kalonjereri, urte bakotx meza batzu eman zituzten itoen ari-men fagoretan.

Ber denboran, anglesek fagore batzu egin ziozkaten Miarritzeko hiriarri.

Jokalariak:

DURFORT: 50 urte, edozoin.

WILSON: 40 bat urte, poliza arpegi.

AMAYUR: 30 urte, eder.

NIKA: 20 urte, eder.

MONSENOR: 50 urte, edozoin.

ZALDUYA: 30 urte, edozoin.

URTUBI: 30 urte, edozoin.

PUYANES: 50 urte, edozoin.

MARGRET: 45 urte, arpegi minbera.

PILIKA: 45 urte, maltzur.

PINTO: 35 urte, edozoin.

MILIKA: 35 urte, leun.

LAHET: 35 urte, edozoin.

ANGLES: Soldado, 25 urte, zingil.

GREBALARI: 30 urte, edozoin.

BISITARIAK: Hiru gizon, bi neska eta bi emazte.

Grebalari, euskaldun gudari, dantzari, bestaliar, bi haur, angles soldado, bi akusatu eta abar.

Abisua: Jokalari batzuek egin ditzakete bi paper, hala nola: Monsenor eta Pilika; Margret eta emazte bisitari bat; Puyanes eta Milika; Zalduya, Urtubi eta Lahet: euskaldun gudariak; angles soldado eta euskaldun gudari eta abar...

LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua:

Gobernadorearen bulegoa.

*(Durfort gogoetatua, eskuin eta ezker dabila...
Entzuten da ate xilintxa bat)*

PINTO: *(Agertuz... Sar-atera guzitan, burua ukurtuz agurtzen du)* Jaun gobernadorea...

DURFORT: Zer da?

PINTO: Zure andere ohoragarria da hemen.

DURFORT: Errozu sartzen ahal dela. *(Pinto ateratzen da)*

MARGRET: *(Agertuz minberaki mintzo)* Ez zirea oroitzen bihar ortzeguna dela, eta ortzegun guziez, Nika gure alaba eta lau sehiekin joaiten girela, egun pasa, Kanboko uretarat? Ala sobera zauzkitzua zure alaba eta emaztearentzat egiten dituzun diru xahutze pizar horiek?

DURFORT: *(Bizi-bizia)* Pizar horiek? Pizarrak deitzen dituzuia... Zu eta Nika, zuekin joaiten dituzuen

lau neskatoak, zuen segitzaile igorri behar ditugun gizonak, lau zaldi ta karrosa, horien guzien egun osoko gastuak?... Eta gainerat, zuen denen arropatzeak... eta aste guziz arropa desberdinak!

MARGRET: (*Suminduki*) Zu, Angleterrako erregearen ordaina, Euskal Herri guziko gobernadorea, zu zirea hola mintzo?

DURFORT: Ni, ba ni!

MARGRET: Zure meneko diren inguru-jauregietako jaunak, Hazparneko Zalduya, Urruñako Urtubi, Sarako Lahet eta bertze, bi zalditako karroz dira etortzen Kanboko uretarat. Ez ahal zinuke nahi, gobernadore jaunaren andere eta alaba, haiek bezala, bi zaldiz joatea? Nun liteke zure graduari zor zaion errespetua?

DURFORT: Gaur segur hemengo jendea ez da mintzo zuk uste duzun bezala. Bainan diotena da, heien bizkar eta heien izerdiz girela gu handizki bizi. Jada askotan erran dautzut ez duzula deus konprenitzen politikan... Hori, ene ildo da eta ez duzu zuk hortan sartzerik.

MARGRET: (*Mingorki*) Zuk bezenbat eta, hainitz sailetan, zuk baino hobeki dakit nik, nola doan

hemengo politika. Galda zozu alabari, ea ez ote giren gu politikaz usu mintzatzen, Kanboko uretan, hor gurekin elkartzen diren euskaldun buruzagiekin!

DURFORT: (*Idor*) Hanbat gaxto hori hola balin bada. Hortakotz ere, ez dut batere begi onez ikusten, zuek biak Kanborat joaitea.

MARGRET: (*Nigarrez*) Gaixo gure Nika! Alaba bakarra dugu... Ezkontzeko adinean... Hor, Kanbon, badu padara, handiki-jaun batzuen ezagutze-ko... beharbada haietarik batekin bere biziko arrimuen egiteko...

DURFORT: (*Kexu*) Bakea eni xoxokeria horiekin! Ez da euskaldunetan aski gorako gizonik, gure alaba emaztetzat ukan dezakenik... Bertzalde ere, gure politikari ez zaio holakorik gomeni.

MARGRET: Ezkontzekotz, gizonak behar ditu ezagutu. Hor ez bada, nun ba ote? Erradazu nun eta zoin gizonekin sar daiteken harremanetan!

DURFORT: Ordua etorriko delarik, senargai bat hautatuko diogu.

MARGRET: Ba, eta hura ez balin badu bere gustukoa?

DURFORT: Gure Nikak eginen du bertzek bezala: Senarra baitan on zaizkonak goza eta gaizki

zaizkonak... jasan. (*Ate xilintxa joiten dute, bainan ez bata, ez bertzeak, ez dute entzuten. Magret nigarrez hipaka. Pinto agertzen da... Apur bat ixilik dago... Eztulño batez, hor dela salatzen du*)

DURFORT: Ha, hor zinena? Zer da berri?

PINTO: Jaun gobernadorea... jaun bat.

DURFORT: Ongi da. Errozu sar dadien. (*Pinto ateratzen da*)

MARGRET: Ez ahal dautazu biharko ezetza emanen!

DURFORT: (*Zainetaratua*) Lepo zintzurreraino aseanaiz zure mindulinkeriez! Zato hunat... Baratze-ko atea idekiko dautzut, hortik aterako zira.

PINTO: (*Wilson sar araziz*) Jaun gobernadoreak erran du jauna sar daitekela.

WILSON: (*Agertuz*) Jes! Bainan... nun duzu hemen jaun gobernadorea?

PINTO: (*Leihotik so eginez*) Baratzean da... (*Wilson agurtzen du, bi eri altxatuz*) Intelligence Service!

WILSON: (*Berdin bi eriz agurtuz*) Intelligence Service. Zurekin ere egoiteko xedearekin etorria naiz. Gure ixpiungo zerbitzuak arras kontent dira zure lanaz... Hola-hola hurbildik ixpiuna-zazu

gobernadorea: Zer nori erraiten duen, nor duen buruz buru ikusten, guk jakitea on litezken xeheteria guziak... Oraidanik, zure hilabete saria doblatzen dautzugu.

PINTO: Bihotzez esker mila, Wilson jauna.

WILSON: Eta orai ixilik! (*Agurtuz*) Intelligence Service!

PINTO: (*Agurtuz*) Intelligence Service! (*Ateratzen da*)

DURFORT: (*Agertzen da*) Ha! Zu zinema atean, kapitan Wilson? Otoi barkatu! Atezain bat badugu hemen, ez baita munduan ttulagorik. Ez horri galda norbait nor den edo zer erran dion.

WILSON: Zer nahi duzu... orotarik bagira lur gainean.

DURFORT: Zu, Wilson jauna, hemen berean ikusi zaitu gutienik hamar aldiz. Baiona guzian jendek eza-gutzen zaituzte, kapitan Wilson, gure gizon armatu guzien buruzagia... Bainan uste duzuia, atezain talo horrek, salatu ere dautala zu zinela gure atean? Ja!

WILSON: Zerbitzari ixilak izaiten omen dira zintzoe-nak.

DURFORT: Segur ez du hunek gure etxea galduko. Ez haatik gizenduko ere... Dena den, berriz ere barka, kapitan Wilson, ez bainaiz agertu ate-sarrerat. Noiz itzuli zira Angleterratik?

WILSON: Atzo arratsean sartu ginen hemengo portuan.

DURFORT: Ta? Zer diote Londresen hemengo gorabeheretz? Minixtroak zer dio guk hemen hartu erabakiez, eta ditugun xedez?

WILSON: Denak errotik onartzen ditu eta bere goresmenak igortzen daukitzu gutun hunen bidez. *(Emaiten dio gutuna)* Ongi zaio Euskal Herria bizatitan ezar dezagun: Baiona alde batetik, gaineratekoa bertzetik. Ongi zaio ere aduana bat munta dezagun Baiona inguruan, dirua biltzeko, hunat sartuko edo hemendik aterako diren salgailuak tatsatuz.

DURFORT: Jukutria pixka baten bidez baionesak fagoraturuz, errex izanen da sumindura piztea baiones eta bertze euskaldunen artean. Elgarren artean nahasiko dira... Guretzat, hobe, anar-tean bakea emanen baitaukute. Beharrik ez dira ohartzen euskaldun zoro horiek, nola malobratzen ditugun! Jadanik Miarritzeko auzapeza ene saretarat bildua dut, bertze zonbaitekin.

WILSON: Hobe, hobe! Bide onetik ari zira eta, berriz ere, Londresen arras kontent dira zutaz. Gaurko

zure zerbitzuek, gorapeneko atepak zabaltzen dauzkitzute.

DURFORT: Hola Londresen notatua izaitea, atsegin eta sustengu bat da neretzat... Bainan halere pentsatzen dut ez dituzula bakarrik arrosak ekarrieni eskaintzeko... Artean, zombait arantze ere menturaz badaitezke!...

WILSON: Ez, ez... Ba... ez deus bat... Oharmen kokor bat baizik ez... zera... zure alaba.

DURFORT: Ene alaba?

WILSON: Ba. Ez dakit ean jakintsun zirenez nola hor, Kanbon, elkartzen diren euskaldun buruzagi batzu, zure andere eta alabarekin...

DURFORT: Eta gero?

WILSON: Kanborat jiten da ere Amayur jauregiko pre-mua.

DURFORT: Ongi ezagutzen dut Amayur nafar hori. Baionako portua, dakizun bezala, Nafarroak hainitz baliatzen du bere itsasontzientzat. Eta, Amayur horrek tratu handiak egiten ditu hemen.

WILSON: Ba, Nafarroa ez da gure meneko. Bere gain bizi da. Nola Nafarroan ere jendea baita euskalduna, Amayur horren ametsa da, euskaldun

guzien bateratzea gobernu bakar baten azpian.
Hortakotz da gure kontrario amorratua.

DURFORT: Horrek zer ikusteko du ene alabarekin?

WILSON: Diotenaz, Amayur horrek baluke begitarte zure alabarentzat. Eta Kanboko ur-etxe hori bilakatua da gure kontrako liztor kofoin bat.

DURFORT: Ha... hortan girea?

WILSON: Ba, eta zure alaba hola jarraitzea liteke kaltegarri zure aintzinamenduarentzat.

DURFORT: Ez hortaz egin odol gaxtorik... Hitzemaiten dautzut makurbide hori berehala zuzenduko dudala: Orai beretik jakin arazten diozu minixtroari. (*Ate xilintxa entzuten da*)

WILSON: Ez duzu fitsik galduko... irabaziko baizik.

PINTO: (*Agertuz*) Jauna... jaun bat.

DURFORT: Ezagutzen duzua?

PINTO: Jaunak ezagutzen du.

DURFORT: (*Zainetaratua*) Kaka zaharra! Galdegiten dautzudana da ean badakizun nor den.

PINTO: Dirudi dela Baionako jaun auzapeza.

WILSON: (*Durfort-i*) Hura balin bada, zure baimenarekin, nahi nuke nik ere bera ikusi.

DURFORT: Nola ez? (*Pintori*) Errozu sar dadien. (*Pinto ateratzen da*) Hori gizon kurkuila! Asto zaharra!

WILSON: Zergatik zira hola kexatzen? Ez ahal dakizu astotik ez daitekela atera astoarena baizik?

DURFORT: Astoarena, eta ere bertzen astotzekoa!

PINTO: Puyanes jauna, Baionako jaun auzapeza. (*Ateratzen da*)

PUYANES: (*Sartuz*) Agur, agur jaunak! (*Elgar agurtzen dute*)

WILSON: (*Puyanes-i*) Pentsatzen dut, zergatik heldu ziren. Preseski zure ikusterat abian nintzen. Nik uste zure gaurko buruhaustea da nola euskaldun arrantzaleak elgarren artean zanpaka ari diren.

PUYANES: Hori bera. Lege bat egin dugu, deliberatuz, baiones arrantzariak, eta haiek bakarrik, dutela ur gazian arrantzatze eskubidea. Nola Errobi ibaian, marea joaiten baita hemendik Uztaritzearaino, ur-ibai hori gelditzen da oso osoa baionesen eskupeko. Erran gabe doa, milafrankar, uztariztar eta bertze ingurukoek ez dutela holarikorik onartzen. Alabainan, gure legeaz, beren herriko uretan arrantzatzea diotegu debekatzeko. Santa sekulan ez dute holako debekurik izan. Hortakotz, kasik egun guziz, Errobi hegiko arrantzaleak, baionesak eskualde batetik, gai-

neratekoak bertzetik, ari dira elgarren artean jo-zanpaka eta hilka.

WILSON: Horixe bera da guk nahi ginuena!

PUYANES: Ez dut konprenitzen.

WILSON: Gure politika da, euskaldunak ez uztea elgarrekin bat egiterat. Eta hortakotz, heien artean beti nahasketak muntatzea. Hola izanen baitute nun abusa guri oldartu gabe. Ikusten dut atseginekin euskaldun zoro horiek, aho beteka ires-ten dutela guk eskaini apasta... Banoa... Uzten zaituztet buruz buru. (*Elgar agurtzen dute. Ateratzen da*)

PUYANES: Zerrikeriako, anglesak errege... Bainan, errak hi, badakik nik bezain untsa, ez dela aduanako diru moltsa baino ilunagorik. Ez duka ikusten nola aduanako buruzagi guziak aberasturik diren erretiratzen!

DURFORT: O.K., bainan zer nahi duk guk egin deza-gun?

PUYANES: Badakika nori Wilsonek eskaini zioen aduanako buruzagitza?

DURFORT: Nori?

PUYANES: Hik eta nik ongi ezagutzen dugun Artiga zerri horri? Haatik ez zio kargu hori eman nahi

guk onartu gabe. Hortakotz Artiga gure so zia-
gok, hemen hurbil duen bere etxean. Haugi
berehala. Elgar adituko dugu nola egin tratua...
Jada proposamendu bat egina zioiat... Gordezka
irabazi sosetarik, hiru zati egin: Bat beretzat,
bertze bana gutarik bakotxarentzat. (*Ate xilin-
txa entzuten da*)

DURFORT: Ha! Berriz ere heldu zautak ba norbait!

PINTO: (*Agertuz*) Jauna... jaun bat.

DURFORT: Ongi da, Pinto... Ni apur batentzat kanporat
noa... Jaun horri errozu hemen nere goait ego-
teko... Eta ezin balin badu, datorla bertzaldi
batez.

PINTO: Ongi da, jauna. (*Ateratzen da*)

DURFORT: Haugi to, hi! Hemendik aterako gaituk,
baratzeko atetik... (*Ateratzen dira*)

PINTO: (*Agertuz*) Huna, jauna, gobernadore jaunaren
goait-sala.

AMAYUR: (*Agertuz*) Bainan, erran diozu gobernado-
reari, Amayur jauna zela hemen.

PINTO: Ez jauna, ez bainakien Amayur jauna zinela!

AMAYUR: Hanbat gaxto! (*Ate xilintxa entzuten da.*
Pinto ateratzen da. Amayur bakarrik, harat eta
hunat dabila)

PINTO: (*Agertuz*) Amayur jauna, gobernadore jaunaren alaba da hemen. Bere aitaren ikusterat etorria da. Dio, zuri berdin balin bazautzu, sala huntan egonen dela bere aitaren goait.

AMAYUR: Nola ez? Errozu baietz. Bere etxean dela, ez duela hemen egoiteko, ene baimen beharrik.

PINTO: Ongi da. (*Ateraturik, berriz agertzen da Nika-rekin*) Huna, Amayur jauna, Nika jaun gobernadorearen andere alaba. (*Ateratzen da. Nika eta Amayur, biak irriz, elgar besarkatzen dira*)

NIKA: Nolaz zira hemen?

AMAYUR: Zure aitaren ikusterat jina... Eta zu?

NIKA: Ni ere ba.

AMAYUR: Aitaren ikusterat jina... edo ni ikusirik?

NIKA: Aitarenganat jina, bihotza beldurrez pil-pil eta... zu hemen aurkiturik, bihotza bietan pil-pil!
(*Irriz*)

AMAYUR: Pentsatzen dut bihar, Kanbon, elgar ikusiko dugula.

NIKA: Ez dakit. Ni beldur ezetz... Aitak ezetza eman dio amari... Orai ageriko nik zer ihardespen ukanen dudan! (*Ate xilintxa entzuten da*) Ate xilintxa! Norbait bada hor! Beharbada aita... Egin dezagun alegia elgar ez ezagutzen!

PINTO: (*Agertuz*) Gobernadore jauna. (*Ateratzen da*)

DURFORT: (*Sartuz. Pixka bat harritzen da hor diren biak ikusi-eta. Idorki mintzo*) Nika, zer ari zira leku huntan?

NIKA: Amak, zu ikusterat igorria nau.

DURFORT: Ez dea hemen bertze salarik etxekoen artean elgar ikusteko?

NIKA: Hainitzetan, hunat bererat sar arazi nauzu.

DURFORT: Bon... Utz nezazu jaun hunekin mintzatzerat. Eta zaude sahetseko salan, nik deitu artio.

NIKA: Ongi da. (*Ateratzen da*)

DURFORT: Barkatu, Amayur jauna, badut uste ez zaitudala agurtu ere!

AMAYUR: Orai egina da.

DURFORT: Apur batentzat ateraia nintzen, gure aduana berriko jaun buruzagiarekin mintzatzeko.

AMAYUR: Preseski, ni ere, hortaz mintzatzerat etorria naiz. Baiona da euskaldunen portua eta bereziki nafarrena.

DURFORT: Ez, Amayur jauna, Baiona da angles portu bat. Zuek, nafarrek, ez duzue horren gozamena baizik.

AMAYUR: Bai, gure portua anglesek ebatsi ondoan, orai gurea den portu horren gozamena, diruz

pagarazten daukute. Eta gainerat, zuek aduana bat muntatu daukuzue horrarat iragaiteko bidean.

DURFORT: Holakoak dira Angleterrako erregearen manuak, eta ni ez naiz erregearen zerbitzari bat baizik.

AMAYUR: Gure lekuetan, jauna, zerbitzari bat ez delarik kontent bere nausiaz, haren etxetik joaiten da...

DURFORT: Nere kargua ez dut uzten, euskaldunak maite ditudalakotz eta kalte handiagotik heien begiratzeko.

AMAYUR: Dena den, ene izenean eta nafarren partez, zure erregeari erranen diozu, gu, hemendik aintzinat, Pasaiko porturat joanen girela, lehengo tatsen gainerat, aduana hori ere behar balin badugu ordaindu.

DURFORT: Segur izan zaite, Amayur jauna, zure komi-xionea eginen diodala errege jaunari.

AMAYUR: Pentsatzen dut baietz, eta ere, haren ihar-despena jakinen dugula lehenbailehen.

DURFORT: Bai eta ere, Amayur jauna...

AMAYUR: Bertzaldi bat artio beraz.

DURFORT: Bai, bertzaldi bat artio. (*Amayur ateratzen da. Durfort bakarrik, zainetaratua, harat eta hunat dabila... Pinto deituz*) Pinto!

PINTO: (*Agertuz*) Jauna!

DURFORT: Errazu, Pinto, zuk duzuia oxtian ene alabasar arazi barne huntan?

PINTO: Zuk erran bezala egin dut, jauna... Zuk erran dautazu: «Norbait heldu balin bada, hunarat sartzeko, zu itzuli artio».

DURFORT: (*Bizi-bizia*) Norbait... Norbait heldu balin bada... Badakizu arras ongi etxekoentzat ez dela erraiten «norbait» bainan «ene emaztea», «ene alaba» eta holako... (*Eztituz*) Eta... erradazu, Pinto, zer iduritu zautzu, Nika eta Amayur buruz buru aurkitu direlarik? Elgar ezagutzen zutela ala ez?

PINTO: Badakizu, jauna, ene ofizioa da atea ideki eta hestea. Ene lanaz kanpo, ni ez naiz deusez okupatzen.

DURFORT: (*Erdi haserre*) Bon, bon... Ongi da... Errozu Nikari sar dadien. (*Pinto ateratzen da. Durfort bakarrik*) Begiak ba, eta ez ikusten... Beharriak ba eta ez entzuten... Hau asto ziria!...

PINTO: (*Agertuz*) Jauna... Andere Nika. (*Ateratzen da*)

DURFORT: (*Idor*) Errazu, Nika, zertarat etorria zinen hunat?

NIKA: Amak igorri nau zuri galdegiterat ean biharko ukanen ditugun ala ez zaldiak eta karrosa...

DURFORT: (*Haserre*) Orai beretik ihardesten dautzuet bieri: Ezetz, ezetz eta ezetz! Ez bihar, ez eta nehoiz gehiago!

NIKA: Zer, zer duzu, aita, hola kexatzeko?

DURFORT: Zer dudan? Ez ahal dakizu nola zabiltzan Amayur horrekin? Eta ez eni erran, uste gabetarik zireztela barne huntan buruz buru gertatu!

NIKA: Bizkitartean, aita, hori hola da.

DURFORT: Ez dut nahi mutil hori gehiago ikus dezazun!

NIKA: Zergatik, aita? Zer gaizki egiten dugu?

DURFORT: Zergatik diozu? Ez ote dakizu Amayur dela anglesen etsai errabiatua? Hori dela Euskal Herria libratu nahi luken lehen burua?

NIKA: Eta gero zer? Zure politikak behar ote du manatu ene amodioa?

DURFORT: (*Haserre*) Zer?... Ene politika, diozu? Ene politika ez ote da ere zurea? Zuk eta nik, gaur jaten dugun ogia, gaur dugun gradua, ez ote

dugu anglesenganik? Zu, ez zira euskalduna eta ez duzu deus ikustekorik euskaldunekin.

NIKA: (*Minberaki*) Zuk nahi duzuna erranik ere, ni euskaldunen alde naiz.

DURFORT: Zer?

NIKA: (*Gero eta suharrago*) Bai, aita, ez ote da zuzen, euskaldun populua, bertze edozoin populu bezala, libro izan dadien?

DURFORT: Zu?... Hola mintzo?...

NIKA: Ez bakarrik ni, bainan hainitz gazte gira hola mintzo, izan gaiten euskaldun ala ez euskaldun... Zuk, hemengo jendearen kontra egiten duzun politika, makurra da. Politika horren sari, irabazten duzun dirua, makur irabazi dirua da.

DURFORT: Zu, zer zira beraz? Gaixtagin baten alaba?

NIKA: Ba, aita, hala naiz... Zureganik jaten dudana ogia, jende gaixo batzuen izerdiari ebatsi ogia da.

DURFORT: (*Bortitz*) Bon, aski! Aski xorokeria badut entzunik zureganik... Ikusten dut jaun koxkor horiek ez dautzutela bakarrik bihotza usteldu, bainan ere burua galdu. Hemendik aintzinat, ez dut nahi izan dezazun deus harremanik gizon horiekin!... Entzuten duzu? Arras bazterrerat

utziko dituzu! Eta geroxago, joanen zira Angleterrarat, hango aireak alda ditzan zure ikusmen tetele horiek!

NIKA: (*Fermuki*) Ez, ez naiz joanen Angleterrarat.

DURFORT: Eni hola jazartzen balin bazira, ez zaitut Angleterrarat igorriko bainan komentu hetsi batean betikotz sartuko.

NIKA: Holakorik egiten baduzu, ene burua hilen dut.

DURFORT: Hanbat gaxto zuretzat!... Eta orai, zoaz hemendik kanporat, zure zain horien pixka bat lainotzerat! (*Nika ateratzen da, nigarrez hipaka. Durfort bakarrik*) Hori ere behar ginuen beraz! Gure ohantzean sugea!... Zerutik euria eta teilatutik barazusa! (*Ate xilintxa entzuten da*)

PINTO: (*Agertuz*) Jauna... jaun bat!

DURFORT: (*Pintok bezala errepikatuz*) Jauna, jaun bat! (*Haserre*) Nor? Zoin jaun?

PINTO: Dirudi Miarritzeko jaun auzapeza.

DURFORT: Pilika jauna beraz, Miarritzeko jaun auzapeza balin bada. Sar araz-zazu! (*Pinto ateratzen da. Durfort bakarrik*) Miarritzeko auzapez Pilika, barnez baita guti kilika, ariko gira tratuka, bainan partida nere, nik baititut esku eta hogoita hamaika!...

PINTO: (*Agertuz Pilikarekin*) Pilika jauna, Miarritzeko jaun auzapeza. (*Ateratzen da*)

DURFORT: (*Pilika beroki agurtuz*) Agur, agur adixkidea! Ha! Zoin ongi etorria ziren!... Preseski, gaur berean, zure ikusterat joaitekoa nintzen. Bainan neke da hemendik ateratzea.

PILIKA: Ni ere kezkatua nindagon ene gorabeherekin. Hortakotz etorri naiz, jaun gobernadorea, jakiterat zertan den ene eskabidea.

DURFORT: Zuk eskatzen zinuen, miarriztarrek deus ez ordaintzea aduanari, beren arraina Baionan sartzeko. Mila solas eta buruhausteren ondotik, hautsi-mautsi bat egin dugu. Iduritzen zait frango plantakoa miarriztarren onetan.

PILIKA: Eta, zer dio hautsi-mautsi horrek?

DURFORT: Lehenik, bai... Baietz ba, Miarritzek Baionari saltzen ahalko diola bere arraina, hor ezarri dugun aduanari deus ordaindu gabe.

PILIKA: Hobe, hobe!

DURFORT: Bigarrenekorik, aduana hori ez pagatzea sari, miarriztar arrantzalek beharko diotela Angleterrako erregeari, urte baxotx, urririk fornitutako balea bat osoa eta lehenik harrapatuko duten ur-otso arraina.

PILIKA: Ai, ai, ai! Hori kargahandiskoa emaiten dauku.

Ez dakit ez ote diren horren kontra oldartuko gure arrantzaleak.

DURFORT: Hirugarrenekorik, arrantzalen laguntzeko, erregeak, miarritzeko portu gainean eraikiko du gerla dorre bat. Dorre hortan egonen dira, gau eta egun, itsas zaindariak. Zaindari horien lana izanen da, itsas zabalean agert daitezken balea eta ere... barku etsaien, berehala seinalatzea.

PILIKA: Hori ere zerbait da... Sarri berean, kontseiluko gizoneri jakin araziko diotet.

DURFORT: Ez dautzut gordetzen, zuri esker eta zuretzat dudala hoinbertze ardietsi, beti agertzen zirelakotz guri leial.

PILIKA: Bai eta leial egonen ere! Angleterra da gure aberria, hari josiak girenaz geroz. Eta behar dugun hura, ez dezakegu ukan harenganik baizik.

DURFORT: Arrazoin duzu. Zer liteke alabainan Euskal Herria gu gabe? (*Trufatuz*) «Euskadi bakarra da gure aberria» kantatzen dutenak, xori buru batzu baizik ez dira... Gure aberri bakarra da Angleterra. Hemengo jendeak dira euskaldun-

anglesak. Euskal aberria ez da zonbait buru beroen ametsa baizik.

PILIKA: Eta ni ez binaute ametsek hazten, hortakotz naiz Angleterrari jarraitzen. Bon, orena ari da aintzinat. Joan behar dut. (*Elgarri eskuak tinkatuz*)

DURFORT: Errazu... Zera ere... Hor baituzu nardamendu bat: Akusatzen baitzaituzte herriko dirua azpiz zureganatu duzula... ez hortaz kexa... ez duzu deus ondorio gaxtorik ukanen. Auzi hori ene eskutan da, eta behar dena eginen dut hori lurperatzeko...

PILIKA: Milesker, jaun gobernadorea. Orentzat milesker... eta agur! (*Ateratzen da*)

DURFORT: Agur, ba, Pilika jauna! (*Bakarrik*) Bi eman ziozkaiat eta hiru kendu. Gaizo bulunba!... Ez duk ohartu ere, Miarritzen eraikitzen dugun gerla dorrea bere zaindarekin, ez dela jukutria bat baizik, gure gizon armatuen hor sakatzeko. Hola, leku ganean izanen baitira, sor litezken nahasmenduen bentzutzeko. (*Ate xilintxa entzuten da*) Beharrik holako euskaldun jaun batzu baititugu gure alde. Bertzenaz, nork goberna Euskal Herria?

PINTO: (*Agertuz*) Jauna, Milika da hemen, Milafranka-Mihotz jauregiko sukaldaria.

DURFORT: Ha! Milika, kozinari aipatua! Gogo onez ikusiko dut... Haatik, nola apur batentzat atera behar baitut, otoi zaude zuhaur berarekin, ni berriz itzuli artio. (*Ateratzen da*)

PINTO: Ongi da jauna! (*Leihotik so egiten du norat doan nausia... Gero Milika sar arazten du*) Haugito, Milika... Nausia apur batentzat kanporat joana duk.

MILIKA: (*Agertuz eta ixpiungo molde berezian agertuz*) Intelligence Service!

PINTO: Intelligence Service!... Nun habila hemen to?

MILIKA: Kapitan Wilsonnek igorri naik. Paper bat badiat hemen, manuairekin, lehenbailehen eman dezodan gobernadoreari... Paper hortan zer ixkiriatzen duen hik ere jakiteko, huna hiretzat paper horren doblea.

PINTO: Ez duka bertze egitekorik?

MILIKA: Ez, eta berehala banioak hemendik, ez baitu nehork jakin behar ni hemen izan naizenik.

PINTO: Ongi duk.

MILIKA: Bon, huna bi paperak eta agur!... Intelligence Service!

PINTO: Intelligence Service! (*Bakarrik, beretzat ukan papera irakurtzen du*) Gobernadore jaun ohoragarria. Hemengo herrietan ditudan ixpiun zombaiten bidez, jakin dut auzapez batzu eta bereziki Urtubi Urruñakoa, Santxo Lahet Sarakoa eta Zalduya Hazparnekkoa, ari direla gizon armatu multxo baten muntatzen. Iduri luke kolpe tzar baten apailatzen ari direla gure Baiona-aduanetakako gardenen kontra. Beraz... (*Arrabots bat entzunik papera gordetzen du*)

DURFORT: (*Sartuz*) Bakarrik zirea? Nun da Milika?

PINTO: Joana da. Erran du ez zuela zure ikuste beharrik; paper hau baizik ez zuela zuri emaitako. (*Papera eman eta ateratzen da. Durfort-ek papera irakurtzen du ixilik. Gogoetatua dago. Ate xilintxa entzuten da*) Jauna... hiru jaun!...

DURFORT: Nor dira?

PINTO: Hiru auzapez: Urruña, Sara eta Uztaritzekoa.

DURFORT: Sar arazkitzu. (*Bakarrik*) Beharri luze horien hezteko, arto burua on ez bazaiote, makil kaska. (*Hiru auzapezak sartzen dira hase-re gorrian*) Agur jaunak! Jar zaitezte.

ZALDUYA: Ez, jauna. Ez gira jarririk solastatzeko etorriak!

DURFORT: Zer dira ba zuen arrangurak? Mintza zaitezte. (*Mintza bitez, tirahala, kalapitan*)

ZALDUYA: Hunat etorri gira, zuri erraiterat, jaun gobernadorea, leporaino aseak girela zure jokabidez!

DURFORT: Zer? Zer derasazue?

ZALDUYA: Atzo, zuen aduana botiga hori dela-ta, uzta-ritzar eta milafrankatar arrantzale batzu izan dira beren barkutarik, zuen guardez, urerat aurtikiak, preso altxatuak, amanda izigarriz joak.

DURFORT: Nik zer hoben dut hortaz? Jazar zaitezte erregeari eta ez eni! Aduanako lege hori haren-ganik heldu baita.

ZALDUYA: Ta, ta, ta, ta, ta! Ez guri holakorik saka! Sobera ongi dakigu erabakiak nola hartzen diren zuen artean. Zer daki erregeak hemen zer pasatzen den? Harek ez ditu onartzen baizik zuk hemendik proposatuak.

URTUBI: Ni ere etorria naiz erraiterat, itsas hegiko itzain eta karrosazain guzien izenean, gaurtik aintzinat, denak greban jartzen direla, Baionari boikot eginez. Ezin jasana baita Baionan sartze-ko ezarri duzuen aduana hori.

DURFORT: Zuk, Urtubi jauna, badakizu arras ongi angles turistak, gero-ta gehiago heldu direla itsas hegi huntarat. Eta anglesak, joaiten duen baino diru gehiago uzten duela hemen.

URTUBI: Dirua hemen utzi-ta joaiten balitz angles turista, paso! Bainan emeki gure lurren erosten ari da. Gure bixta-leku pollitenak beretzen ari ditu. Bere bizitegiaren apaintzeko, gure oroitza-pen zaharrak bil eta bil ari da. Gure hilobi harriak berak hartzen ditu etxe edergailutzat.

LAHET: Ba, eta Sarako usotegietan, anglesak dira aurtent jabetu ihizi posta hoberen guziez. Eta, beren azeri ihizia dela-ta, angles zaldizkoak hor ibiltzen dira, berro guzien gaineratik jauzika, gure ontasunak xahutzen dituztela.

URTUBI: Hola, joanez, anglesak bilakatuko dira Euskal Herriaren jabe. Euskaldunek beren lurra hustuko dituzte, edo beren herrian izanen dira arrotzen zerbitzari.

DURFORT: Noren faltaz? Aski dituzte euskaldunek beren ontasunak ez hola saltzea.

ZALDUYA: Zuen faltaz dira holakoak hemen gertatzen! Zuen diru zikinaren faltaz; gaindika baitituzue hemengo pobreak tentatzen eta hemen-

go handi-mandi batzu erosten. Euskaldunek baginu gure gobernu bat, laster egin ginezake lege bat, debeka baiginezake gure lurren arrotzeri saltzea.

DURFORT: Aitor-azu, Zalduya jauna, anglesek zerbait onik ere ekartzen diotela Euskal Herriari. So egizu zonbat ikastetxe ez ditugun muntatu hemengo haurren eskolatzeko.

ZALDUYA: Gure haurren eskolatzeko? Bainan nola eta norentzat? Euskaldunak direnaz geroz, gure haurrak behar litezke eskolatu euskaldunki eta Euskal Herriarentzat. Horren orde, zuen jokamoldea da gure haurren anglestea, horietarik egiteko Angleterra zerbitzatuko duten soldado, polizgizon, enplegatuak. Ondoko egunetan, hola moldatu haur horietaz zarete baliatuko, euskaldunen ondarra larrutzeko, zanpatzeko eta suntsitzeko.

DURFORT: Bon, eta horiek hola, zertarat etorri zirezte eneganat?

ZALDUYA: (*Harritua*) Zertarat jinak giren hunat? Zertarat jinak? (*Musikatuz bezala*) Deusetarat, jaun gobernadorea: Bakar bakarrik zuri agurño

baten erraiterat, ohartu ahal ziren bezala, zure erraztunari errespetuz musu emaiterat.

LAHET: Bai, eta zure gibela milikatzerat, bertze asko bezala.

DURFORT: (*Oldartuz*) Bon! Aski solas horrela! Otoizten zaituztet joan zaitezten hemendik kanporat!

LAHET: Ez, jauna, ez gira joanen. Etxe hau gurea da. Hemen, gure herrian gira. Zuri da joaitea, arrotz bat baitzira eta etxe huntan ohointzaz sartua.

DURFORT: (*Haserre*) Ez baduzue atera nahi, ni aterako naiz... Egingen duzue nahi duzuen. (*Ateratzen da*)

ZALDUYA: (*Hiruak erdi irriz daudela elgarri so*) To, ederki zakuan sartu gaitik... Basurde tzarra! Azken orrotaraino ziztakatu diagu, bainan hale-re, ustelak ihes egin!

LAHET: Goazen, goazen, gu ere, hemendik. Hemen egonez, berdin zerri horrek denak preso altxatuko baigaitu. (*Ateratzen dira. Pinto sartzen da, sala pixka bat ordrean ezartzeko*)

DURFORT: (*Agertuz, apur baten buruan*) Joan direa?

PINTO: Bai jauna, joan dira. (*Ateratzen da*)

DURFORT: (*Bakarrik eta samur*) Zer uste dute horiek? Beren elasturiaz gu arreka joan araztea? Zer

dezake horien mihiak gure beso armatuen kontra? Tetele-putz ergelak! Gure eskutik behar bizitzekoa eta... hoin harroki mintzo! Nortzat naukate ni? Fartzuntzi koxkorrak!

PINTO: (*Agertuz*) Jauna, zure andere ohoragarriak nahi luke zurekin mintzatu.

DURFORT: Errozu ene partez geroxago ikusiko dudala...

PINTO: Ongi da, jauna. (*Ateratzen da*)

DURFORT: Eta guri jazartzen balin badira, mila soldado igorriko diozkatet beren lurren hondatzerat.

MARGRET: (*Ero baten pare sartuz*) Errazu, zu! Zu, aita bat zira, Nikari erran diozkatzunak erraiteko? (*Mintza dadiela gelditu gabe, nigarrez hipaka senarrari elea moztuz*)

DURFORT: Zer, emaztekoa, zer?

MARGRET: Gure alaba bakarra... etxetik kasatzen duzula! Angleterrarat igortzen! Zer dira manera horiek? Eta ni, ez naiz konda? Ni, ez naiz Nikaren ama, ala zer?

DURFORT: Bakea eni zure sintsakeriekin!

MARGRET: Eta gainerat, bere bizi guzikotz, komentu hetsian sartuko duzula! Aita batek nola dezake

pentsa ere holako abrekeria? Gaurko egunean, holakorik gerta daitekela...

DURFORT: Ixilik egonen zirea, bai ala ez?

MARGRET: Hor dago etxean, nigarrez urtua. Berak dio, komentuan sartzen balin baduzu, bere burua garbituko duela... eta nik dautzut, ez dela Nika-ren heriotzea, bakarra izanen gure etxean.

DURFORT: Kanporat hemendik! Ale, ale, kanporat.
(Pusatzen du)

MARGRET: *(Ez du atera nahi)* Zure burua, jaun handi agertzen duzu jenden aintzinean! Bainan zure jauntziak du, zuk duzun jauntasun bakarra. Ha, balakite jendek nik zutaz dakidana! Ez duzuia lotsarik, ez ahalgerik, hola zure haurra eta zure emaztea tratatzeko!

DURFORT: *(Erotua, bi zaflako ematen diozka, orroaz kanporat aurtikiz)* Kanporat hemendik! Ele untzi sintsa! Zoazi debruatarat, ez balin bazira enekin kontent!

MARGRET: Zuk! Zuk, hau ere eni egin behar! *(Haren nigar hipak, apur batez kanpoan entzuten dira)*

DURFORT: *(Bakarrik)* Ene bizia ez da desiratzeko, ez eta zakurrari ere! Ongi ikusia naiz, hala nola begiko zikina. Gainekoak etsai, azpikoak etsai,

kanpokoak etsai, etxekoak etsai, denak etsai!
Eta zer egin!

OIHALA

BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Bi sala dira, bat aintzinean, bertzea gibelean. Gibelean salako jenden gorputz gainak ageri dira, idekidura batzueri esker. Sala hori da besta-leku moldeko bat. Aintzineko salan da bakarrik, zikiro erretzeko su-pazter handi bat.

Gertaldi hau emana izan dadiela, zatiak elgarriri ongi lotuz eta bakotxari bere ritmoa emanaz.

(Zalduya harat eta hunat dabila, zainetaratua. Urtubi sartzen da)

ZALDUYA: Ta? Denak bizirik atera zirezte?

URTUBI: Bai mutikoa! laufa! Guarda guziak urerat bota ditiagu!

ZALDUYA: Zonbat?

URTUBI: Zortzi... Lau Prudine-eko zubi gainetik, eta bi pare, ibaiaren bi bazterretarik!

ZALDUYA: Nola jokatu zirezte?

URTUBI: Arras errex izan duk: Ilun tunta zian. Zubirat sartu gaituk bi muturretarik. Han ziren lau guardak desarmatu, galtz-ipurditik hartu, eta plust!... Zubi gainetik... Gero, bi multzotan eman gaituk. Bakotxak hartu diagu ur hegian zagon guarda parea, heieri ere armak kendu... eta plust!... Hek lauak ere, urerat!

ZALDUYA: Handik bizirik atera ote dituk, edo han ito?

URTUBI: Ez zakiat: Berdin zaitak. Guk han utzi ditiagu freskatzen. Oihu-orro batzu bota: Go home! Ingliz ustelak! Euskadi gurea duk, ez zuena! Eta holako... Irrintzin alimale batzu ondotik eta tirahala, denek armak bizkarrean, ihes egin diagu! *(Hola solasean ari direlarik eta hek ikusten ez dutela, Milikak zikiroa errez barrandatzan ditu)*

ZALDUYA: Gu ere, gau iluna lagun, angles garden untzirat hurbildu gaituk, ixil-ixila, bi barkutan. Haren gainerat jauzi egin diagu... marinela guziak, zortzi edo hamar, denak lo!... Zuek bezala, batzu herrestan, bertzeak airetan, despeitu ditiagu gainbehera. Heien armez jabetu... bolbora karga batez, heien untzia porroskatu eta tirahala lekuak hustu. Guk ere urrundik bota ditiagu irrintzin batzu.

URTUBI: Tenore hortan, marea beheiti zian. Jastatu duten ura ez zian gazia. Hola, ez ditek gehiago erraiten ahalko, Uztaritzeraingo ura, itsasoarena dela.

ZALDUYA: Guk ere, hori bera ziotegiagu erran, zerri horieri, urerat aurtikitzean: «Jasta horko ura, ean baduen gatzik ala ez!»

URTUBI: Uste duka zerbait konprenitu duten?

ZALDUYA: Berek ez badute konprenitu ere, hor zizteian, beren artean, bi euskaldun «harki» horietarik. Segur, laster ukan ditek «harki» horienganik, guk euskaraz bota oihuen itzulpena!

URTUBI: Izan duka kolpatu edo hilik, hire gizonetan?

ZALDUYA: Ez eta batto ere! Haatik, ez zakiat demendrenik ere, zer galtze izan duten etsaiek... Guk, ebatsi armak bizkarrean hartu-eta, ihesi jo diagu. Eta gizoneri erran ziotegi beren egun guzitako lanari lotzeko... Begi-beharriak erne atxikiz haatik!

URTUBI: Agian ez dituk mintzatuko!

ZALDUYA: Agian ez! Nik segurik, ehun aldiz, gauza bera ziotegi erreplikatzeko... Ixilik dagozila! Gure artean hamarretarik bat erortzen duk, armen

bidez... Bertze bederatzia, mihiaren bidez.
Etsaiak, bere salatariak, nonnahi ditik gaur.

URTUBI: Hortan hirekin nauk. Edariak ditik mintzaraz-
ten «nor naiz ni» agertu nahiak...

ZALDUYA: Ba eta berdin emazteak edo emaztegaiak.

URTUBI: Bai eta ere... emazte debru horiek biltzen
ditiztek gizonak, hala nola eztiak liztorrak! (*Kan-
potik entzuten dira xixtua eta ttunttuna... Aire
euskaldun airos batzu jotzen dituzte... Jendeak
kantatzen du heien inguruan, irrintzin batzu
botatuz... Zalduya eta Urtubi hurbiltzen dira
leihoari... Gibealeko salatik, bertze bestaliar
batzu heenganat jiten dira. Denek, leihotik,
karrikakoekin batean egiten dute kantu, jauzi,
esku-jotze... Musika urrunduz doa, baina gero
ere luzaz, gutixago edo gehixago entzuten da...
Musikaren ondotik, lasterka ateratzen dira oro,
salbu Urtubi eta Zalduya*)

MILIKA: (*Zikiro erretik eskaintzen diotela*) Ean, jaunak,
zer diozuen ene zikiro erreki huntaz?

BIEK: (*Jastatuz*) Hum! Hau gauza! Baratxuria behar
den heinean du... Utz hola-hola.

MILIKA: (*Arnoa zerbitzatuz*) Ditugun hoberenak jan ditzagun, angles ustel horiek ebasterat etorri aintzin!

ZALDUYA: Ebatsi eta jan beharko dute holako ona. Ez baitira berak on holakorik preparatzeko.

MILIKA: Ez eni aipa angles jatekorik! Berdin nahasten dute entselada errezimentarekin eta errakia, esne eta dutearekin.

URTUBI: Eta, gure arno on hau baino nahiago dute garagarrez egin pitar bat.

MILIKA: Eta mozkor ederrik ere biltzen, pitar horrekin nahasi-eta, whisky deitzen duten alkola tzar bat.

URTUBI: Ba, eta horien urgulua!... Arraza horrentzat, gu gaituk zibilizamendu gabeko jende basa batzu. Ez ditek beren oilandentzat nahi hemengo oilarrik.

ZALDUYA: Ba haatik, hemengo oilandak beren oilarentzat.

URTUBI: Ba, heien abusatzeko eta heientzat lan egiteko, bainan ez andretako.

ZALDUYA: Arraza madarikatua! Gure odola bera erosten eta zikintzen die, beren diru pozoinatuaren bidez. (*Kanpoko musika, azkarrago entzuten*)

da... Milika badoa bere lanerat. Oro apur bat ixilik daude)

URTUBI: So egizak nor diren jausten karrosa hortarik!
Amayur nafarra eta gobernadorearen alaba!

ZALDUYA: Nika debrua! Errana zian, bere aitaren debeku guziengatik, hil edo bizirik, gaur gure artean aurkituko zela.

URTUBI: Hori, gu baino ere euskaldun errabiatuago bilakatua duk.

ZALDUYA: Ba, Amayurren amodioa, su gaitzekoa bide duk!

URTUBI: Heldu dituk... Goazen aterat! *(Amayur eta Nika sartzen dira. Lauek, elgar agurturik, solas egiten dute irriño batzuekin)*

ZALDUYA ETA URTUBI: Agur, agur, jaun andere xar-mantak!

BERTZE BIEK: Agur, jaun ederrak!

ZALDUYA: Zer atsegina, Nika, guretzat, zu hemen aurkitzea! Pentsatzen dugu zure aitak eman dautzula luzaz gurekin egoiteko baimena!... *(Nikak jestu batez erakusten du aitaren baimena gabe jina dela)*

AMAYUR: Errazue, hobe diagu berehala etxeko andere xaharra agurtzea!... Jeikia dea?

URTUBI: Ba, beti bezala, berak muntatua dik besta hau guzia. Zangoak gaizki ditik, bainan burua argi... Han duk bere salunean! Zoazte aintzinat. *(Sartzen dira bertze salarat. Apur baten buruan, Urtubi eta Zalduya ateratzen dira... Berriz ere entzuten da musika kanpotik. Hemendik aintzinat, «lunch» batean bezala, bestaliarrek jaten eta edaten dute xutik, harat eta hunat, sar-ateraka ibiliz, eta elgarren artean abusatuz)*

URTUBI: *(Zalduyari)* So egizak karrosa hortarik nor jausten den! Ez duka hori Pinto, gobernadorearen atezaina?

ZALDUYA: Hura bera duk! Jes! Nun eta zertan zabilak hori hemen? Jes! Monsenor-ekin duk eta! Segur, gobernadoreak Monsenor-en segitzaile igorria izanen dik.

URTUBI: Eta nor duk Monsenor hori?

ZALDUYA: Hori duk Monsenor de Tartas. Ez duk ez apezpikua. «Monsenor», ez duk ohorezko titre bat baizik... Nik ez zakiat nungo arrazatik den hori. Haatik, bere burua norbaitentzat zaukak. Mundukeria maite dik eta beti handiki-jendekin ikusiko duk. Gizon bezala, ez zioiat tu baten baliorik emaiten... Saltsa guzitako zali hetarik

duk... Apez bezala ere nik uste berdintsu. (*Nika eta Amayur sartzen dira*)

NIKA: Zoin pixkor den hemengo etxeko andere xaharra! Eta izpiritua zoin xorrotx! Egiazko euskaldun xahar euskal-euskalduna!

URTUBI: Errazu, Nika, zure aitaren karrosa hemen da!

NIKA: Hee??

URTUBI: So egizu! Hortik atera dira Pinto eta Monsenor de Tartas!

NIKA: Ha!... Monsenor de Tartas! Hori bertzerik ez bada!...

URTUBI: Zer ba!

NIKA: Monsenor hori, gure aitaren lagun bat da. Gure etxerat etortzen delarik, aitak prestatzen dio bere karrosa. Bainan aitak estimu guti ekartzen dio: Behin entzun diot erraiten hori dela pika buztan bat.

AMAYUR: Xo! Xo! (*Irriño batekin*) Atean dugu pika buztana! (*Monsenor eta Pinto sartzen dira. Pintok Monsenor-i gibeletik altxatzen dio oihal gorri luze bat. Sartzean, oihala herrestatzerat uzten du*)

MONSEÑOR: (*Nikari esku gainean musu emanaz*) Zu ere hemen, andere gazte ohoragarria!

NIKA: Zuk bezala, nik ere, leku onak maite! *(Nikak banazka presentatzen diozka han direnak. Azkenik Milika ere... Monsenor-ek orori, handiki gisan, eskua tinkatzen diote... salbu Milikari... hura esku jestu ttipi batez agurtzen du)*

MONSEÑOR: Eta nor da etxe hunen jabe buruzagia? Agurtzen ahal duta?

AMAYUR: Ba, Monsenor, ba... Hemengo etxeko andere xaharra da... Zato gurekin. *(Denak ateratzen dira, salbu Pinto eta Milika)*

PINTO: *(Agurtuz)* Intelligence Service! *(Milikak berdin ihardesten dio)* Errak, Milika, ba ote dakik, iragan gauaz, angles guardek, izigarriko zafraldia ukan dutela?

MILIKA: Dena bazakiat. Bai eta ere hemen diren horiek direla zafraldi emaileak.

PINTO: Hortakotz, Wilsonek ordainak eman nahi ziozkatek. Gaur berean, etxe hunen atakatzerat etortzekoa duk bere soldadoekin. Atakada horren preparatzeko, Wilson etorriko duk hunat, hirekin elgar aditzerat!

MILIKA: Ongi duk. *(«Intelligence Service» erranez elgar agurtzen dute... Kanpotik musika entzuten da... Pinto leihotik so ematen da)*

MONSEÑOR: (*Apur baten buruan sartzen da, solas eginenez Amayurrekin... Gaineratekoak, harat eta hunat dabilta, jan-edanez*) Ezindua izanik ere, andere xahar horrek seinale du norbaitasun handikoa dela. Sinets nezazu, badakit zer den norbait izaitea, norbait diren jendekin baititut usu ene harremanak.

AMAYUR: (*Irriño batekin*) Barkatuko duzu, Monsenor, ene ezjakina, bainan zure eliz kargua, gure Baionako jaun apezpikuarena baino goragoa dea ala apalagoa?

MONSEÑOR: Noiz nola, Amayur jauna. Berrikitan, aita sainduak igorririk, Londresen nintzen, Angleterrako erregearen kortean. Eta han, bazkariko, ezarri naute ni, erregearen eskuinean, eta, haren ezkerrean, ezarri dute Londreseko jaun apezpiku nagusia. Zeren eta, diplomazi legetan, aita sainduaren mezularia da edozoin apezpiku baino gorago. Erran gabe doa ere, ene etxerat jiten direlarik jaterat, edo kardinale bat, edo apezpiku bat, nihaur izaiten naizela mahaiburu.

AMAYUR: Eta, ez duzuia beldurrik, jaun gobernadorea samur dadien, zu hemen izanik?

MONSEÑOR: Zergatik behar luke samurtu? Ez ote du hemen bere alaba bera ere? (*Irriño batekin*) Eta hau gure artean... gobernadore jaunak, bere onetan hobe du ez eni jazarri. Pentsa ba, norat ariko liteken, nik ditudan adixkide handiki guziekin! Hori, berak ere badaki.

AMAYUR: Bainan, ez zira zu, jakin gabe, Baionako aduana berri horrengatik, zer kasailak sortu diren jaun gobernadore eta Lapurdiko buruzagien artean!

MONSEÑOR: Hori da, enetzat, gertakari koxkor bat. Zer da hori, mundu zabalean gertatzen ari direneri konparatuz? Balio ote du aipatzea ere?

AMAYUR: Bainan, handi ala ttipi, gertakari bat behar da zuzenbidez trenkatu. Zuzenbide bera da, gertakari larri ala koxkorrentzat. Zure ustez eta zuzenbidez, ongi zautzuia anglesek hola, muga baten bidez, euskaldunak bi zatitan berextea?

MONSEÑOR: Anglesa banintz, erran nezake... baietz. Euskalduna banintz... erran nezake... ezetz.

AMAYUR: Ha! Eta hor antola! Elizak ez badu bertze argitasunik emateko holako gertakarietan, ez zaitela harri gaurko gazteak balin badira elizako artzainetarik urruntzen... eta bertze artzain

batzueri jarraitzen. *(Hola arrazoinka ari direla, entzuten da musika barneko salan. Solasak bururatu bezain laster, bestalariek muntatzen dute farandola airos bat: Monsenor pixka bat galdua dabila farandola emailen erdian. Haatik, nehork ez dio errespetua galtzen)*

WILSON: *(Farandola bururatu aintzintxoan, sartzen da, peregrin beztidurarekin. Peregrinen moldean, xilintxa bat joz, oihu egiten du) Peregrin, peregrin, Santiago peregrin, Jainkoa zuekin!... (Bestaliar multxo batek inguratzen dutela, kantatzen du)*

Agur jende guziak, Jainkoa zuekin
Ni noa Santiagorat, umilki peregrin
Xanpanatik nator-ta, asko penarekin
Dut bide luze hori, hunat artio egin.

Xuxen zait sofritzea, ez dut ukatuko
Ene bekatuentzat egin baitut asko
Jainkoari diot otoitz, ni ta zuendako
Santiagoren medioz, guri barkatzeko.

Oinez ta eske dut nik, bidea egiten

Jende onak du beti peregrin laguntzen
Horra zertako hunat, gaur etorri naizen
Sumatuz ari zaiztela, zikiro erretzen.

*(Esku zartak jotzen diozkate. Milikak eskaintzen
dio jaterat Wilsoni. Biak solasean ari direla, bes-
tak aintzinat jarraikitzen du)*

URTUBI: *(Lagunak ixilarazten ditu)* Galdatzen dut
azken aldiko «menuet» hura emaita.

DENEK: *(Eskuz eta oihuz)* Menuet! Menuet! Menuet!
*(Orduan dantzariak emaiten dute delako
menueta. Bururatzean, denek esku zartak
jotzen dituzte. Berehala musikak jotzen du
farandola bat)*

ZALDUYA: Ale, eman dezagun denek farandola, bara-
tzearen inguruan! *(Denak, farandolan, kanporat
ateratzen dira... Gelditzen dira bakarrik Wilson
eta Milika)*

WILSON: *(Milika agurtzen du erranez)* Intelligence Ser-
vice!

MILIKA: *(Wilson agurtzen du erranez)* Intelligence Ser-
vice!

WILSON: Apur baten buruan, gure soldadoek etxe hau
inguratuko dute. Barnerat sartuko dira, batzu

hemendik, bertzeak baratzetik... Zuk, ataka hastean, igor oihuka hemengo jendeak baratze-ko alderat.

MILIKA: Eta nik, armarik ukanen duta?

WILSON: Bai... Zuk eta Pintok, armak ukanen dituzue gure soldadoenganik... Armak eskuratu ondoan, soldado bezala gobernatuko zirezte.

MILIKA: Jendea hil behar duguia?

WILSON: Ahalaz ez... Bost nahi genituzke presoner egin, berehala jujatu-ta garbitzeko: Zalduya aita semeak, Urtubi, Lahet eta Senpere. Gaine-ratekoak, libro utziko ditugu.

MILIKA: Amayur ere libro!

WILSON: Bai, nafarra da eta, gaurkotz, ez dugu samurtu nahi Nafarroarekin.

MILIKA: Ongi da. *(Elgar agurtzen dute, «Intelligence Service» erranez. Jada musikak eta arrabotsak tapatzen ditu heien solasak. Farandola desegiten da eta bestaliar guziek, harat eta hunat ibiliz, mimika batzu elgarren artean eginez, betan kantatzen dute)*

Ziburutik Sararat izatu naiz joana
Neure lehenagoko maite batengana

Han arribatu gabe entzun nuen fama
Guarda gazte batekin zela hitzeman.

Guarda gazte hoietan fidaturen denak
Ardura izanen tu bihotzean penak
Hoiek nahi dituzte gazte pollitenak
Arrakasta guti du zahartua denak.

BATEK: (*Aire berean*)

Ziburutar gaizua guardak enganatu
Bere uso maitia buzokak beretu
Hire orde nakikek, nik nola jokatu
Buzoka atxeman-ta lepoa bihurtu.

BERTZE BATEK:

Lepoa bihurtzea eni ez zaut aski
Ondotik lumatzea merezi du naski
Bainan lumatu aintzin, behar baita busti
Urean dezagun sar buzoka luzeki.

LEHENAK:

Denen izenean dut eginen galdia
Errepusta zuk eman, jaun sukaldaria
Buzoka guritzeko zer luken hobia
Zeruko ura edo itsas ur gazia.

AMAYUR:

Sarako usoteian sartu da buzoka

Hortaz baitute denek burutik gaindizka
Etor aise guganat laguntza galdezka,
Nafarroa prest baita lotzeko tiroka.

NIKA:

Nik dakitan uso bat egun da hunat jin
Buzoka guzieri baitu ihes egin
Gudian sar liteke gogotik zuekin
Bere atzapar eta moko xorrotxekin.

AMAYUR:

Uso xori pollita, argi ta garbia
Zure arma hoiekin, oi zer gudaria
Bainan zuretzat badut posta bat hobia
Izan zaite guretzat izar gidaria.

(Esku zarten ondotik musikak jotzen du: «Hupa, hupa Mariano...» Batzu kantuz, bertzeak jauzika ari direlarik, ikus daitezke Wilson, Pinto eta Milika, erne eta zainetaratuak dabiltzala. Betbetan, Milikak botatzen ditu oihu batzu ikaragarriak)

MILIKA: Anglesak! Angles soldadoak hemen! Ihesi!
Ihesi hemendik! Baratzeko bortatik! Hemendik!
Baratzeko bortatik! *(Angles soldado zonbaitek jauzi egiten dute barnerat.. Argiak itzaltzen dira... Entzuten dira bakarrik guduaren arrabo-*

tsak. Atabalak jotzen du gelditu gabe... Kleron tuta batzu artetarik... Mubleak erortzen... Armen arrabotsak: Klisk! Klask!... Kolpatuen intzirinak. Emazten krizkolak... Anglesen oihuak... Batek: «Hip! Hip! Hip!». Bestek: «Hurrah!»... Euskaldunen irrintzinak. Batek: «Gora Euskadi!». Bestek: «Gora!». Batek: «Inglis, go home!». Bestek: «Go home!»... Lasterkadak... Euskaldunek elgar deitzen dute: «Hemendik!... Ez, baratzetik! Baratzea anglesez betea duk!... Aita!... Ama!... Jauzi murrugainetik!» eta holako oihu. Arrabotsak izan ditela ez leku beretik, bainan hiruzpalau lekutarik. Emeki arrabotsak bakantzen dira, ezitzen... Argiak ere emeki pizten... Taula ganean da desordre izigarri bat... Erdi puskez estalia, bulto bat bada lurrean... Monsenor da han, erdi belauniko, erdi ahuspez, eta beldur ikaraz joa)

ANGLES SOLDADO BAT: (Hurbiltzen zaio) Zer ari zira zu hemen?

MONSEÑOR: Ez ni hil! Nik ez dut nehorik fitsik egin!

ANGLES: Kanporat hemendik! Fuera, ta laster gero! (Monsenor bere soineko oihal luze gorria ezin bilduz ari da, han baitauka, erori pusken artean)

trabatua. Anglesak oihala biltzen dio eta sudurrerat aurtikitzen) Horra zure trapu tzarra! Eta orai fuera hemendik! *(Monsenor ateratzen da. Orduan sartzen dira Wilson, Durfort gobernadorea, Pinto eta Milika)*

WILSON: Guk behar genituen bortzak, arrastatu ditugu... Gaineratekoek ihes egin dute. Bortz horiek, hemen berean eta berehala jukatuko ditugu... Zuek biek, Pinto eta Milika, laster eta larri-larria antola-zazue barne hau eta hemen munta-zazue auzitegi bat... *(Angles soldadoari)* Zu, zato enekin.

DURFORT: Eta nik, zer dut hemen egiteko?

WILSON: Zu zira auzitegi hunen presidentea. Zuk behar dituzu jukatu bost gizon horiek.

DURFORT: *(Bizi-bizia)* Bainan, ni ez naiz legegizona, hola, auzitegi baten buru izaiteko!

WILSON: Auzi hau ez da legezkoa, bainan da gerla auzi bat.

DURFORT: Gerla auzi bat, nahi dut... Bainan ez naiz ni gerlari gizon bat.

WILSON: Berdin du, edonor izanik ere! Ez dautzugu galdatzen jende horien jukatzea, bainan horien hiltzerat kondenatzea.

DURFORT: *(Kexu)* Bon, bon, bon, bon!...

WILSON: Zu, zato enekin. *(Ateratzen da soldado anglesarekin)*

DURFORT: *(Apur bat harat eta hunat dabila, kexatua...)* Bertze biek aski duzue emaita ene eskuin eta ezkerrean. Izanen zirezte enekin, bigarren eta hirugarren jujari, armadako aintzindari bezala.

BIEK: Ongi da jauna. *(Beren lekutan jartzen dira. Orduan kanpotik entzuten da atabal bat... Jotzen du emeki hil-martxa bat... Oro ixilik dagozila, sartzen dira emeki, zintzo, bost kondenatuak. Elgarri, estekatuak dira... batzu odoletan. Inguruan dituzten soldadoek bortizki erabiltzen dituzte... Jujamendu denboran xutik dagozi. Atabala ixiltzen da. Hiru jujeak xutitzen dira)*

DURFORT: Auzia idekia da. *(Jartzen dira)* Ikus dezagun ean hemen diren bost kondenatuak... *(Protesta batzu entzuten dira. Milikak zerbait beharrit salatzen dio gobernadoreari)* Ha, ba... Bost «kondenatuak» erran dut... erran gogo nuen bost «kondenatzekoak». *(Berriz ere protestak... eta Milika bazterretik mintzo)* Berriz ere tronpa-

tu naiz: Ez baitira «kondenatuak» izanen, apur baten buruan baizik. Ordu arte dira bakarrik «akusatuak». Sekretario jauna, hoi enizenak otoi.

ANGLES SOLDADO BAT: *(Sekretariogoa egiten du)*

Huna bost akusatuen izen-deiturak: Gillome Arno Zalduya eta bere semea Oier Zalduya, biak Hazparnekoak, Martin Urtubi, Urruñakoa, Santxo Lahet Sarakoa, Gillome Arno Senperekoa...

DURFORT: Bortzak hemen direa?

ANGLES SOLDADOA: Bai, hemen dira, jaun presidentea.

DURFORT: Ongi da. Eta orai, gaurko auzi hau joan dadien argi ta garbiki, ene kontzientziaren arabera, Angleterrako justizia errespetatuz eta Jainkoaren legepean, erran dezagun ohi den otoi-tza. *(Hiru jujeak xutitzen dira, Durfort bildutasunekin)* God save the king. Liberté, égalité, fraternité. Por Dios y la Patria, una, grande, libre!

DENEK: Amen! *(Hiru jujeak jartzen dira)*

DURFORT: Eta orai, sekretario jauna, irakur akusamendua!

URTUBI: Barkatu, jaun presidenta, gu legez jujatzeko, gurutzefika bat beharrezkoa da zure mahain ganean.

DURFORT: Hau ez da legezko auzi bat, bainan gerla auzi bat. *(Denek protesta egiten dute. Durfort-ek xilintxa joz)* Otoi ixilik!

URTUBI: Hau balin bada gerla auzi bat, jujari bezala behar ditugu soldado aintzindariak, eta beraz ez zu, ez eta ere zure sahetseko bi xakur horiek.

AKUSATUAK: *(Gaitzeko arramantza ateratuz)* Ale kuxe, Pinto!... Milika, ale kuxe... Hau! Hau! Hau!... Ama saltzale ustelak! Judas... Harki... Angles ipurdi milikari!... Xakurrak kanporat! *(Zakur xixtuak)*

DURFORT: *(Haserre, xilintxa joz)* Ixilik!... Ixilik gero!... *(Noizbait ixiltasuna egiten da)* Sekretario jauna, irakur akusamendua.

ANGLES SOLDADOA: Huna akusamenduaren lehen pondua: Angleterrako legearen arabera.

AKUSATUAK: *(Oihuka errepikatuz)* Ingliz... Go home... Ingliz go home. *(Hainitz aldiz)* Gora Euskadi. *(Hainitz aldiz)*

DURFORT: (*Errabian, xilintxa जो, oihuka ari da gelditu gabe*) Ixilik!... I-xi-lik! (*Noizbait ixiltasuna berriz eginik*) Sekretario jauna, irakur akusamendua.

ANGLES SOLDADOA: Lehen pondua: Angleterako legearen arabera...

AKUSATUAK: (*Oihuka errepikatuz*) Euskadi libre!... Euskadi libre! Euskadi libre!... Gureak gure! Gureak gure! Gureak gure!

DURFORT: (*Haserre gorrian, beti bezala xilintxa जो, oihuka*) Ixilik... Ixilik gero... Edo auzia berehala bururatzen dut! (*Berriz ixiltasuna egiten da*) Azken aldikotz, eta zuen onetan, galdatzen dautzuet ixilik egoitea... Sekretario jauna, irakur akusamendua.

ANGLES SOLDADOA: Angleterako legearen arabera...

AKUSATUAK: (*Oihuka errepikatuz*) Angles, ez, ez!... Euskaldun, bai, bai... Angles, ez, ez... Euskaldun, bai, bai!... Angles, ez, ez... Euskaldun, bai, bai!... Hiru, lau, zazpi... Zazpiak bat!... Hiru, lau, zazpi... Zazpiak bat!... Hiru, lau, zazpi, zazpiak bat!...

DURFORT: (*Xutitzen da bere bi lagunekin. Erotua, orroaz, ahal bezain azkar, entzuna izaiteko*) Hola denaz geroz, huna, besterik gabe, ene sen-

tentzia: Denak hiltzerat kondenatzen zaituztet.
Bostak itotzerat kondenatzen zaituztet. Mila-
franka-Prudinako zubiari loturik, burua doidoia
ur ganean, marea beheiti delarik. Marea, goiti-
tzean, ito ditzala. Eta jasta dezatela horko ura
gazia den, ala ez...

AKUSATUAK: *(Huu, huu, huu, eta xixtu batzu bota
ondoan, hurbiltzen zaizko gobernadoreari, jo
nahi balute bezala... Berehala kantatzen dute
fermuki)*

Eusko gudariak gera
Euskadi askatzeko
Prest gaude gure odola
Bere alde emaiteko.

Irrintzin bat entzun da
Mendi tontorrean
Goazen gudari denak
Ikurriña aurrean.

*(Soldadoek bortizki dabilizatela, gudariak kan-
porat ateratzen dituzte... Ateratu ondoan ere,
heien kanta, apur batez entzuten da)*

DURFORT: (*Ixiltasuna egin delarik, populuari buruz, saminki mintzo*) Partida hau, ez dugu guk irabaziko, bainan horiek... horiek bai... horiek!...

OIHALA

HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Eliza sakristi handi bat.

MONSENOR: (*Puyanes-ekin*) Bai, jaun auzapeza, hau da delako sala.

PUYANES: Beraz hau da, Baionako katedrale huntan, gure solasen erabiltzeko, eskaini daukuten sala.

MONSENOR: Hau bera da. Badakizu alabainan, bost gizon horiek itoz geroztik, gauzak zoin makur doazin.

PUYANES: Badakit, badakit: Baionaren erdia, bertze erdiarekin joka eta hilka... Herri hainitzetan, elizak gose grebalariez okupatuak...

MONSENOR: Bai, eta gure katedrale huntan berean, gose grebalari multzo bat.

PUYANES: Katedralean, gose greban eta hirian, jendea gose miserian. Orai arte etortzen baitziren ehunka orga eta karrosak, egun guziz, Euskal Herri barnetik Baionarat, jateko eta edatekoz

kargatuak... Orai bat bakarra ere ez da etortzen... Euskaldun sasi gudariak badira nonnahi bidetan. Eta hanbat gaxto hemengo merkaturat abiatzen denarentzat.

MONSEÑOR: Eta, zuen aduana berri hori, zer bilakatzeko da?

PUYANES: Ez zazula otoi aipa ere! Hori muntatua ginuen diru biltzeko eta gaur, ez dauku dirurik emaiten, bainan jaten.

MONSEÑOR: Ikusiz gauzak zoin gaizki doazin, katedraleko jaun kalonje ohoragarriak bildu dira eta sala hau eskaini dute bake egilentzat biltoki bezala. Nola ene diplomazi lana baita urratuen pedaxatzea, galdatu daute ean nahi nuen entseatu hemengo makurbiden xuxentzerat.

PUYANES: Izanen duzu lan, hemengo baxera hautsien antolatzen.

MONSEÑOR: Badut jada holako bat eginik ene bizian.

PUYANES: Eta, nola ikusten duzu zure jokabidea?

MONSEÑOR: Izan naiz bi eskualdetako buruzagien aurkitzen. Deneri galde bera egin diotet: Ean onartzen duten baketsuki biltzea hemen, sala huntan. Esperantza dut, harremanetan sartuz,

batzu eta bertzerena entzunez, hautsi-mautsi bat moldatuko dugula.

PUYANES: Agian ba! Mirakuluak oraino ere gertatzen direla, behar omen baita sinetsi!

WILSON: (*Sartuz*) Agur jaunak!

BIEK: Agur, agur, kapitan Wilson!...

WILSON: Hau da beraz, bake solasetako, jaun kalonjere-
rek eskaini daukuten sala?

MONSEÑOR: Hau bera, Wilson jauna, eta nihaurek dut
lokarri hautsien berriz koropilatzeko kargua.

WILSON: Hortakotz etorria naiz, preseski, zure aurki-
tzerat. Nahi nuke, zure bitartez, komixione bat
helarazi katedrale huntako kalonjereri.

MONSEÑOR: Zer komixione, jauna?

WILSON: Ez dut konprenitzen nola gose grebalari
horiek jasaiten dituzten katedrale hunen bar-
nean.

MONSEÑOR: Eta, zer erran behar diotet zure partez?

WILSON: Katedrala dela otoitz leku bat, elizkizunen
egiteko eraikia, eta ez jende piltzar batzuen
horrarat biltzeko, gizon emazteak nahasteka-
tuak, gau eta egun, hor elgarrekin, usain eta
zikin pean!... Zuk, zer diozu hortaz?

MONSEÑOR: Gure denboran ez ginuen holakorik onartuko, bainan zoazi zu zerbaiten erraiterat oraiko gazteriari!

WILSON: Zuen hobena da, elizgizonen hobena, hortaratu balin bada gaurko gazteria!... Nun duzue gure denborako apezen larderia? Nun, heien erakaspén garbi zorrotza?

MONSEÑOR: Bai, alde batetik zurekin naiz, bainan bestetik, gazteria ere behar da entzun.

WILSON: Gazteria, Monsenor, behar da moldatu. Onez-onean ez bada hezten ahal, behar da indarraren bidez eskolatu. Ez da heieri manatzea... Lehenik ikas dezatela zer den eta nolakoa den bizia... Gero manatuko dute.

MONSEÑOR: Bai, bai, bainan gaurko gazteak, gu horien adinean baino hainitzez argituago dira. Erraiten badiozute katedralea dela otoitz leku bat eta besterik ez, ihardetsiko dautzute, denboraz, katedrale hau baliatu zutela politika biltzarren egiteko, teatro toki bezala eta ere lo egiteko leku bezala, Santiagorat zoazin peregrinentzat. Beraz, hola katedralea okupatuz, ez dutela ohidura bat zangopilatzen, bainan bere errespetuan berriz jartzen.

WILSON: Zure solasetarik iduri luke, Monsenor, zu ere horien alde zirela!

MONSEÑOR: (*Bizi-bizia*) Ez, ez holakorik uste izan! Ni, zurekin nago, bainan dautzut salatzen nolakoa den horien ikusbidea.

WILSON: Bon, dena den, banuke komixione bat jaun kalonjerentzat.

MONSEÑOR: Hetarat noa orai berean. Zer behar diotet erran zure partez?

WILSON: Errozute, ene partez, nik, poliza nagusi beza-la, beti errespetatzen ditudala eliza barneak eta hetan sartzen diren gaxtaginak, bere burua salbatzeko... Bainan, gaur katedralean diren grebalariak ez direla legeaz gerizatuak. Eta beraz, galdatzen diotet kalonje jauneri, grebalari hoieri eman dezoten manua lekuen husteko.

MONSEÑOR: Eta, ez balin badute joan nahi?

WILSON: Orduan, kalonjerek dei egin dezatela polizari.

MONSEÑOR: Eta, ez balin badute dei egin nahi?

WILSON: Berdin zaut. Polizak, ordrea begiratzeko eskubidea du, nahasmendua sortzen den leku guzietan. Katedraleko buru-bero horiek, ez dira hor, nahasmendua pizteko baizik.

MONSEÑOR: Ez daiteke erran nahasmendurik pizten dutela... Geldirik dagozi.

WILSON: Nahasmenduaren piztea, bego hori gure gain.

MONSEÑOR: Ez zirea beldur, kapitan Wilson, jendea sumintzea, polizgizon armatuak katedralean sartuz? Dakizun bezala, hainitz jende dabila grebalari horien ikusten, eta gehienak beren alde dituzte.

WILSON: Jendea, fisik ez da, Monsenor... ardi artalde bat baizik. Zonbait xakur, gibeletik emanaz geroz, ardi horiek tirahala barreiatuko dira eta ez da bihi bat on izanen denik guri oldartzeko.

MONSEÑOR: Bon, berehala banoa jaun kalonjerenganat, zure partez erraiterat...

WILSON: Ene partez erraiterat, apur baten buruan sartuko naizela katedralerat ene gizonekin... edo hek hola galdaturik, edo... bederen heien ixiltasunaren baimenarekin.

MONSEÑOR: Ongi da, kapitan Wilson.

WILSON: Badakizu, Monsenor, Angleterrako erregeari aipatua diodala zu kardinalgorat altxatzea... Daitekena da, gaurko zure jokabideak ondorio ukan dezan.

MONSEÑOR: Errozu errege jaunari, ene partez, beti naizela haren zerbitzari leial... *(Ateratzen da)*

WILSON: *(Puyanes-i, irriño batekin)* Kabala bakotxari bere bazka... Bertze batzueri beldurra edo dirua. Huni aldiz ohorea!...

PUYANES: Gure Monseñor hunen kardinaletzeko aipamenik badea egiazki Angleterran?

WILSON: Ba, iazko haize bezanbat!

ANGLES SOLDADO BAT: *(Agertuz)* Kapitan Wilson, mezu bat zuretzat... *(Ateratzen da)*

WILSON: *(Papera irakurtzen du ixilik... kexu)* Urde zerriak!... Gertatu behar zena gertatu da.

PUYANES: Zer gertatu da?

WILSON: Euskaldun sasi gudariak harrapatu dituzte Pinto eta Milika, eta biak garbitu... Bi salatari on gutiago guretzat.

PUYANES: Bixtan dena da, horiek ez zezaketela ukan barkamenik, euskaldunen eskuetaratzat eroriz geroz.

WILSON: Egia... Gure angles legetan, saldukeriak urka-soka du gaztigu. Zer nahi duzu! Beren irriskuak hartu dituzte. Partida galdu dute... Guk ez dugu horiekin deus zorrik... Ongi pagatzen genituen.

DURFORT: (*Sartzen da... samur*) Agur jaunak!

BIEK: Agur, agur!

DURFORT: Kapitan Wilson, ez naiz batere kontent, ez zutaz eta ez zure gizonez.

WILSON: (*Harritua*) Zer da? Zer gertatzen da?

DURFORT: Zer gertatzen den?... Oroit zira, pentsatzen dut, nola ene emaztea erotegirat sartu zinuena?

WILSON: Bai, zure emaztea ezin jasan zinueta-ta, zuk galdatu zinautan zerbitzu hori: Miriku adixkide batek lo-belarra edaterat emanik, sartu ginuen betikotz erotegian.

DURFORT: Bai, horiek hola dira. Geroztik, hilabetetik honenbertzeko bat ordaintzen dut erotegiari, ene emaztea ongi zaint dezaten.

WILSON: Badakit ere, hortarako esku zabalekoa zirela.

DURFORT: (*Bortitz*) Nolaz ba, gaur, ene emaztea aurkitzen da katedrale huntan, gose grebalarien erdian?

WILSON: (*Harritua*) Zer? Badaitekea holakorik?

DURFORT: Bai jauna, hori hola da. Eta ene emaztea mintzatu da eta mintzo da orori, ni beztuz eta erranez, burutik bazuelako aitzakiarekin, bizi guzikotz erotegian sakatu dudala.

WILSON: Berehala banoa... Kalonjerek nahi edo ez nahi, katedralean sartuko naiz ene gizon armatuekin... eta handik zure emaztea aterako dut, bizirik ala hilik.

DURFORT: Segur, zerbaiten egiterat mugi zaiten ordu da. (*Wilson ateratzen da*)

PUYANES: Gure partida arras galdua ikusten diat. Baionaren erdia etsaiaren eskuetan duk, eta bertze erdia... gure banderen erretzen ari. Hor-takotz, nik oro prest ditiat, denak utzi-ta hemendik ihes egiteko. Nahi duka enekin jin?

MONSEÑOR: (*Sartuz*) Agur jaunak!

BIEK: Agur Monsenor!

MONSEÑOR: Ez dea hemen Wilson jauna!

DURFORT: Ez... joana da bere polizgizonekin katedra-lea husterat.

MONSEÑOR: Ha!... Beraz hori deliberatu du! Preseski, heldu nintzen erraiterat, jaun kalonjeren partez, berek ez dutela, ez galdeginen, ez eta debekatu-tuko polizari, katedralean sartzea. Polizak hartzen balin badu irrisku hori, bere gain ondorioak ere.

DURFORT: (*Haserre*) Betiko elizgizonen jokoa... Atzo irabazi ginuen... Ez ginen heien beharretan...

Orduan erotik gure alde... Gaur, heien beharretan gira eta hek duda-mudetan... Bihar, galtzen badugu, hek, gure etsaien alde eta guri ostikoka. Agur Monsenor! (*Ateratzen da*)

PUYANES: Nik ere agur! (*Hura ere ateratzen da*)

MONSEÑOR: (*Harritua*) Jes! Nik ez dakit ba! Diploma-ziako legeak dira hola. Gobernuko gizonekin egiten dira tratuak, eta ez gobernuak galtzen, edo gobernuaz ezin jabetuz ari direnekin. (*Atea idekitzen du. Entzuten dira kalonjeak katedra-lean, mar-mar-mar beren ofizioaren erraiten ari*)

KALONJE BAT: Deus in adjutorium meum intende.

BESTEAK: Domine ad adjuvendum me festina.

KALONJE BAT: Gloria Patri eta Filio, et spiritui Sancto.

BESTEAK: Sicut erat in principio eta nunc eta semper, et in saecula saeculorum. Amen!

KALONJE BAT: Rerum Deus tenax vigor...

BIZPAHIRU KALONJE:

Immotus in te permanens

Lucis diurnae tempora

Successibus determinans

BESTE BIZPAHIRU:

Largire lumen vesperae

Quo vita nusquam decidat

Sed praemium mortis sacrae

Perennis instet gloria.

LEHEN BIZPAHIRUAK:

Praesta pater piissime

Patrique compar unice

DENEK BATEAN:

Cum Spiritu Paraclito

Regnans per omne saeculum

Amen.

(Gizon zahar eztul batzu. Monsenor-ek borta hesten du)

MONSEÑOR: Gure jaun kalonjeak, ofizioaren erraiten ari... Zer gertatuko ote da, Wilson katedralean sartzen balin bada bere gizon armatuekin?

(Berriz borta idekitzen du. Apur bat ixilik, ofizio-ko otoitzak entzunez)

BIZPAHIRU KALONJE: Os habent et non loquentur; oculos habent et non videbunt.

BESTE BIZPAHIRU: Aures habent et non audient; nares habent et non odorabunt.

LEHEN BIZPAHIRUAK: Manus habent et non palpa-bunt, pedes habent et non ambulabunt; non clama-bunt in gutture suo.

(Orduan hasten da katedraleko guduka... Entzuten dira: Atabala gelditu gabe jotzen. Oihuak:

«Huu! Huu! Huu!». Tiro zonbait... Deiak: «Hemendik!... Haugi hunat!... Har kadirak!... Jo muturrean!». Jendeak errepikatuz: «Zakurrak kanporat! Zakurrak kanporat!... Inglix, go home!... Inglix, go home!». Monsenor, zainetara-tua, eskuin eta ezker dabila. Betbetan sartzen da gose grebalari bat. Berekin ekarki du pankarta bat: «Inglix, go home... Gureak gure!»)

MONSEÑOR: Eta, zer gertatzen da?

GREBALARI: Zer gertatzen den? Aski duzu etortzea ikusterat! Artzainak artaldearekin behar du izan, eta ez hartarik urrun!

MONSEÑOR: Zer nahi duzu, nik egin dezadan?

GREBALARI: Gutienik, gure artean egon, zure kapa gorri horrekin. Badakizu arras ongi kapa gorri hortaz baliatzen, bertze eginkizun batzuetako... (Ateratzen da, bere pankarta han utzi-eta)

MONSEÑOR: (Kexu, besoak altxaka) Ni, Jainkoaren gizona naiz... Ez da eni sartzea mundu huntako desordretan!... (Gudua aintzinat ari da. Entzuten da erraiten: «Denak sar kaperrarat!... Gakotu kapera! Huu! Huu! Angles, ez, ez! Euskaldun, bai, bai! «... Burdin kaskak... «Gora Margret!... Gora!... Eta tiro eta tiro, angles ustelari!»... Jen-

dea eztulka... oihu luze handi bat. Denek kantatzen dute: «Gurea da, da, da, Euskal Herria!». Grebalari berriz sartzen da bertze lau-bost grebalariekin. Eztulka ari dira... Bi pankarta dakartzate, batean: «Angleterra anglesentzat, Euskal Herria euskaldunentzat». Bertzean: «Ez dugu eskatzen ogia, bainan libertatea»)

MONSEÑOR: Zer duzue hola eztulka?

GREBALARI: Polizak, Magret gobernadorearen emaztea, nahi zuen eraman. Harekin, guhaur preso ezarri gira bazterreko kapera batean. Bainan polizak keztatu gaitu, erleak kofoinean keztatzen diren bezala. Eta, ihes egiterat behartuak izan gira... Ez baitzen barne hartan irauterik!

MONSEÑOR: Eta Margret?

GREBALARI: Polizak berekin joan du.

MONSEÑOR: Banoa kalonje jauneri berehala ororen erraiterat. *(Ateratzen da)*

GREBALARI: Bost axola dik, to, polizak, hire eta kalonje horien erranez!...

AMAYUR: *(Sartzen da, gudari beztitua, bertze bizpahiru gudariekin... Grebalaria xutitzen dira eta txalotzen dute oihu eginez: «Gora Amayur!... Gora!»). Amayurrek, jestu batez ixilarazten ditu)*

Agur lagunak... Monsenor-ek hunat deitu naik, bake tratuen egiteko anglesekin. Ez dea hemen Monsenor?

GREBALARI: Ez, orai berean ateraila duk hemendik.

AMAYUR: Bon, zuentzat, huna azken berriak... Baiona, kasik guzia gure eskuetan dugu. Han hemenka, zombait etsai multxo koxkorrek dute bakarrik oraino ihardokitzen. Ez naiz tratutan sartuko anglesekin... Ordrea emanen diotet: Joan ditela hemendik. Bertzerik ez. Ez badute joan nahi gonbidoz, igorriko ditugu ostikoz.

MONSEÑOR: (*Sartzen da hats hantua*) Ha! Hemen zina, Amayur jauna?

AMAYUR: Ba, hemen naiz, Monsenor... Zer nahi zinu eneganik?

MONSEÑOR: Berri on bat... Berri on bat, Amayur jauna.

AMAYUR: Zer berri?

MONSEÑOR: Mintzatu naiz katedrale huntako jaun kalonjerekin, eta deliberatu dute, ofizialki kondenatzea angles gobernua, Prudineko zubian ito dituen bost euskaldun buruzagiengatik...

AMAYUR: Ha! Eta zer kondenamendu?

MONSEÑOR: Huna: Angles gobernua beharko ditu eman kalonje horieri, hamabost ehun urrezko eskudo urte bakotx, hamar meza kanta ditza ten, bost hil horien fagoretan.

AMAYUR: Eta besterik?

MONSEÑOR: Besterik? Ez ote da hola-hola polliki?

AMAYUR: Hee? Nortaz trufatzen zirezte, zu eta hemengo kalonjeak?

MONSEÑOR: Trufatzen??...

AMAYUR: Zure kalonje horiek, otoitz egitea truk, ederki diru puska bat eskuratuko dute anglesenganik... Angles moltsari ez dio demendreneko minik eginen diru horrek guhauri baitaukute kenduko zergen bidez. Beraz diru hori emaiterat, gu euskaldunak gaituzue kondenatzen eta ez anglesak.

MONSEÑOR: Zer duzu esperantza gureganik?

AMAYUR: Eliza buruzagieri ez diotegu galdatzen, ez armen hartzea, ez eta ere etsaiari, meza sarien pagaraztea, bainan bakarrik, Elizak aspaldidanik duen erakaspena, argi eta garbi zabaltzea...

MONSEÑOR: Zer erakaspen?

AMAYUR: Ez ote da girixtino erakaspena denen gainetik eta manera berezi batez, girixtinoek, behar

dutela arta hartu jende ttipiez, ahul eta zapalduak direnez?

MONSEÑOR: Bai, bainan Eliza buruzagiek badakigu ere betidanik handiek jaten dituztela ttipiak. Handi ttipiak, amodioz behar direla elgarri lotu eta ez, herraz, elgarren kontra muntatu. Bihar ez ote zaio euskal populu ttipiari dolutuko gaur anglesak hemendik kasaturik? Bihar, ez ote dira, anglesen orde, espainol eta frantsesak, Euskal Herriaz jabetuko?

AMAYUR: Euskal Herriaz zuzen kontra jabetuak eta jabetuko direnak dira ohoin batzu. Ez daiteke amodiozko traturik egin etxerat sartuak dituzun ohoinekin. Girixtino legez, elgar maitatu behar dugu... Hori bai... Bainan, ohoinak ez baditu itzultzen ebatsi dituenak, ez aipa guri hura maitatzerik... Elizak nahi badu amodio zintzoa, jende eta populuetan zabaldu, predika dezala batzu ala bertzek dituzten eskubiden errespetua. Bertzela jokatzuz, ez du deus onik ereiten. Bere alderat, duda-muda eta mespresioa biltzen baizik.

MONSEÑOR: Horiek hola, orai bainoa jaun kalonjereganat, zer behar diotet erran zure partez?

AMAYUR: Errozute sar ditela populu bizian. Beren otoi-tza izan dadiela bizi-borroka horren oihua, eta ez haize xaramela huts bat. Euskal artaldearen artzainak direnaz geroz, boza ozenduz mintza ditela gure nortasunaren alde, eta ez dezatela, gure bizkar, traturik egin gure suntsitzaile diren nonbaitikako otsoekin.

MONSEÑOR: Bon, ahal dudana egingen dut... Banoa.
(*Ateratzen da*)

GREBALARI: (*Amayurri*) Nik uste, Monsenor horrek ez dik bere bizian holako predikurik entzun!

AMAYUR: Elizari zerbitzu egitea duk arbola dardarika-tzea, holako adar eiharren aurtikitzeko. (*Nika beltzez beztu sartzen da nigarrez*)

AMAYUR: Zer gertatzen da, Nika?

NIKA: (*Suspiraka*) Ama... Ene ama!...

AMAYUR: Zure ama, zer?

NIKA: Wilson kapitainak eta bere gizonak ene ama hil dute.

AMAYUR: Hil?

NIKA: Ba, ito!... Katedralean hartu zuten. Ura trebesatzeko xalupa gainerat hupatzean, urerat pusatu dute eta han itotzerat utzi... Gero, ixtripu bat ukan duela, dute erran jenderi. Bainan badira

lekukoak, ongi ikusi dutenak, gauzak nola gertatu diren.

AMAYUR: Abre basak! Arrazoin bat gehiago guretzat, zikinkeria hortaz lur hau garbitzeko... Zu, Nika, egonen zira hemen. (*Grebalarieri*) Zuen gomen-dio uzten dut. Ez izan beldurrik. Katedralean gu gira nagusi. Banoa apur batentzat... (*Ateratzen da bere gudariek. Apur bat ixilik... Entzuten dira kalonjeak beren otoitzetan...*)

BATEK: Jube domne benedicere.

BESTE BATEK: Noctem quietam eta finem perfectum, concedat nobis Dominus Omnipotens.

DENEK: Amen!

LEHENAK: Fratres, sobrii estote et vigilate: Qui adversarius vester diabolus, tamquam leo rugiens circuit quaerens quem devoret: Cui resistite fortes in fide. Tu autem Domine, miserere nobis.

DENEK: Deo gratias!

GREBALARI BAT: Huna nun heldu diren bisitariak hunat ere. Egon zintzo. Ez hitzik atera, ez eta zerbait gure kontra erraiten badute ere.

GIZON BAT: (*Adinekoa*) Atxik gazteak! Zuekin gira! Zakurrak ari dira lekuen husten!

EMAZTE BAT: (*Haur bat besoan, bertzea eskutik*) Ene goresmenak... Ene haurrak ekarri ditud, ikus eta ikas dezaten euskaldun batzuek zonbat sofritu duten beren aberria libratzeko. (*Haurrek musu emaiten diote grebalarieri*)

GIZON ADINEKO BAT: (*Soldado aintzindari moldekoa*) Ez den ba lotsagarri zikinkeria hauen hemen ikustea! Nik oro suz garbi nezazke. Gu anglesak gira eta bertzerik ez. Gora Angleterra!

EMAZTE BITXI BAT: (*Zare bat besoan*) Jes! Jan gabe hoinbertze egunez! Ez naiz aberatsa, baina zueri emaitako doia badut... Zer?? Ez duzuela jatekorik nahi? Hauxe da ba komedia! Ha! Bel-dur... jaten ikusiko dituztela!...

GIZON LODITTO BAT: Alferrak! Alfer ongarriak, zuek! Nik, xola etxe batean sartu-eta, han utziko zintuzketet denak, leher egin dezazuen... Komediantak!

BI NESKA ERGEL: (*Irriz*) So egizan horko horri! Zer mutil pollita! No, ez bide dun enoatzen hortxe-ko neska hori, hoinbertze mutilen erdian!

DURFORT: (*Sartzen da eta, pixka bat harriturik dago grebalarien hor aurkitzea*) Grebalariek hemen ere!

NIKA: Bai aita, eta ni ere, heien artean.

DURFORT: Zu?? Zu, zer ari zira hemen??

NIKA: Zuk hil arazi duzun amaren ordaintzeko etorria!

DURFORT: Ez dut nik amarik hil arazi!

NIKA: Zure faltaz ez da bizi.

DURFORT: Zure aitari errespetua zor diozu!

NIKA: Aitak alabari bezenbat!

DURFORT: Noiz sartuko zira etxerat?

NIKA: Zuhaurek ezarri nauzu kanpoan.

DURFORT: Zu, alaba madarikatua!

NIKA: Bere aitak galdua!

DURFORT: Ukanen dituzu gero bi zaflako!

GREBALARI: Eta zuk bi handiago! *(Grebalariaiek xutitzen dira, oldartuz gobernadoreari)*

DURFORT: Zuek ez duzue deus ikustekorik ene familiako gertakizunetan!

NIKA: Oraidanik, aita, ene familia ez zira zu, bainan dira hauek. *(Erakusten ditu ingurukoak)*

MONSEÑOR: *(Sartzen da, asaldatua)* Hemen dira... Hemen dira... Katedrale guzia inguratua dute... Sartzen ari dira.

DURFORT: Nor?

MONSEÑOR: Amayur eta bere gudariak.

DURFORT: (*Burutik joana*) Monsenor, zuk galdegin dautazu sala huntarat etortzea, hitzemanez hemen aurkituko ginela buruzagiak bakarrik. Nun da zure hitza?

WILSON: (*Sartzen da ero baten pare eta oihuka gobernadoreari*) Zer? Zu hemen? Debru Judas traidorea!!

DURFORT: Zer dituzu solas horiek? Hee?

WILSON: Zer uste duk, jakin gabe naizela, nola Puyanes, hire adixkide ustel horrek eta hik, elgar aditu duzuen hemendik ihes egiteko! Ikusiz ihesi zinoaztela, zuen gizon armatu guziak gure kontra bihurtu dituk!

DURFORT: Hago ixilik, mandil zikina!

WILSON: Ni, mandila?? Hitz hori berriz errepikatzen balin baduk, hemen berean garbitzen haut!

DURFORT: Ez huke lehen aldia hik norbait garbitzea... Doidoia ene emaztea ito duk... Kriminel basa, hi!...

WILSON: Zer? Baduk kopeta hola mintzatzeko. (*Papotik hartuz gobernadorea*) Ez ote dautak hik eman hire andrearen hiltzeko manua?... (*Biak elgarri lotzen dira eta lurrerat erortzen... Mon-*

senor-ek eginahalak egiten ditu haiek berexteko)

GREBALARI BAT: *(Irri trufaz) Zakurrak kolpeka! (Doi-doia lurrerat erori direneko, euskaldun guda-riak, Amayur buru, sartzen dira, soldado urratsean eta kantuz)*

Bat, bi, hiru, lau (bis)

Bost, sei, zazpi (bis)

Euskaldunak du errotik, irabazi, gudia!
(Anartean, borrokariak lurlean daude, bainan mugitu gabe, gudariak dauzkatela beren lantza pean)

GREBALARI BAT: Gora Amayur!

DENEK: Gora!!

GREBALARI BAT: Gora Euskadi!

DENEK: Gora!!

AMAYUR: Ez hil bi urde horiek! Esteka-zkitzue eta eraman katedrale hunen ondoan den auzitegi hortarat. Horko jujek baitute aski zerrikeria eginik gure kontra, gogotik hauek biak hiltzerat kondentatuko dituzte beren burua salbatzeko baizik ez balitz ere! *(Joaiten dituzte Durfort eta Wilson)*
Eta zu, Monsenor, libro zira. Zoazi berehala Erromarat, zure buruzagi diplomatiko handien

aurkitzerat. Errozute Euskadi libro dela, eta heien diplomaten haiduru girela. Jin ditela lehenbailehen agurka eta herrestan eskaintzerat beren goresmenak eta, orai artio, goratik errefusatzen zauzkuten diplomatiko lokarriak!
(Monsenor, burua apal ateratzen da... Amayurrek suharki musu emaiten dio ikurriñari)

OIHALA